

VERBUM DOMINI

Hona hemen Benedikto XVI.ak, irailaren 30ean, Jaunaren Berbeari buruz argitaratu dauan bere agiri barri ederra. Orain urte bi pasatxo, Eliza Katolikoaren XII. Sinodo Nagusian, go-tzainak erabilitako gai berbera dogu hau. Erromako batzar horretan hartutako emaitzak eta proposamenak ditu Aita Santuak gogoan.

Dokumentu aberatsa bai teoria aldetik eta baita pastoraltza aldetik be. Estilo bizia eta erraza darabil. Edonork ulertzekoa. Sarritan zirrargarria be bai! Ideiak azaltzerakoan atsegin jakoz analogiazko adierazpenak. Baita esaera ausartak, indartsuak eta laburrak be gauzak biribiltzeko orduan. Agiri ederra eta praktikotasun handikoa.

Jaungoikoaren Berbea gizon egiten da.

San Joanen Ebanjelioaren sarrera (Jn 1, 1-18) hartzen dau Aita Santuak agiri osoaren ardatz bezala. Hasieratik azkeneraino ez ditu bere begiak testu zoragarri horretatik kentzen. Gabonetan Elizak bere liturgian hiru bider aldarrikatzen dauan zati hau da agiri honen hari eroalea. Maite ditu Aita Santuak Joan ebanjelariaren berba honeek:

“Hasieran bazan Berbea (Logos); eta Berbea Jaungoikoagaz zan; eta Jaungoiko zan Berbea. Berba hau hasieran Jaungoi-

koagaz zan. Dana Berbearen bidez egina da; eta egindakoetan ez da ezer Ha barik eginik. Harengan zan bizia. Eta bizia gizonen argi zan. Argiak ilunpetan argi egiten dau; baina ilunak Ha ez eben onartu. (...) Munduan egoan; eta mundua Haren bidez egina da; baina munduak ez eban ezagutu. Bere etxera etorri zan, eta bereak ez eben onartu. Onartu eben guztiei, barriz, Jaungoikoaren seme izateko eskubidea emon eutsen, Haren izenean sinisten badabe. Honeek ez dira odolotik sortu, ez haragiaren nahieratik be, Jaungoikoagandik baino. Eta Berbea haragi egin zan, eta geure artean jarri eban bizilekua; eta geuk ikusi dogu haren aintza, Aita Seme bakarrari dagokion aintza graziaz eta egiaz beteá”.

“Hementxe dago –dino Aita Santuak– kristau sinismen osoaren sintesia, laburpena”. Hainbat testu ederren artean, beste hau be gogoko dau Aita Santuak agiri honetan: “Askotan eta era askotara berba egin eutsen Jaungoikoak profeten bidez aspalditik gure asabei; eta azkenak diran egunotan, Semearen bidez berba egin deusku. Seme hau eban gauza guztien oinordeko; eta Beronen bidez egin eban mundua be. Berau da Aitarene aintzaren argi distiratsu eta haren izatearen irudia. Beronek eusten deutse gauza guztiei bere berba indartsuz” (Hb 1, 1-3).

Betidanik existitzen da Jaungoikoaren Berbea (Logos). Ez da inoiz be izan Jaungoikoagan momentu bat, Jaungoikoaren Berbea (Logos) existitu ez danik. Dan guztia beronen bidez egina izan da. Berau da zeru-lurren arnasa. Berau historian zehar gizon eginik, Jaungoikoaren seme-alaba izateko eskubidea emoten deuskuna. Berau munduaren oinarria. Berau giza-kion arima. Berau bizidunen bizia.

Gizon egindako Jaungoikoaren Berbearen izena Jesukristo da. Bera dogu Jaungoikoaren egiazko argazkia eta aurpegia eta exegesia. Dan-dana emoten deusku Jaungoikoak bere Semearengan. Joan Kurutzekoaren berbekin, bakoitzak esan leike: “Neureak dira zeruak eta neurea lurra, neureak dira jendeak,

santuak neureak eta neureak pekatariak; aingeruak neureak dira eta Jaungoikoaren Ama eta gauza guztiak neureak dira eta Jaungoikoa bera be neurea da eta neuretzat, Jesukristo neurea dalako eta dana neuretzat”.

Ezin dogu Jaungoikoagandik Jesukristo baino zerbait edo norbait hobeagorik espero, ezta bilatu be. Honetaz be Aita Santuak hausnarketa eder batzuk egin ondoren, Joan Kurutzeakoaren beste testu bikain hau dakar: “Bere Semea, bere Hitzza eta Hitz bakarra dauana emon deuskunean, dana batean eta behin betiko esan euskun Hitz bakar horretan eta ez dauka beste esatekorik. Antzina era askotara profeten ahoz Jainkoak gure arbasoei esana, azkenez, orain gure egunetan bere Semeagaz emon deuskula dana batera eta behin eta betiko. Jainkoa mutu gelditu da, ez dauka beste esatekorik. Lehen zatika profetei esan eutse-na orain osorik esan deusku, bere Semea, guztia dana, emon euskunean. Baina orain, antzinako erara itaundu eta nik eran-tzutea edo berari ezer iragartea gurako leukenak, zelanbait Kris-to barriro emoteko eskatzea litzake, zer sinistu geiago eskatu eta fedean uts egitea, fede guztia Kristogan emonik dagoan ezkerro. Olan irain andia egingo leuskio nire Seme maiteari”.

Hainbat abotsetako sinfonia

Kristo Jesus dogu kosmosen eta zeru-lurren eta gizadiaren eta Elizaren eta Eskritura Santuaren eta Tradizioaren bihotza eta arima. Kristo da atomo guztien bizia eta arnasa. Diran guztiak Jaungoikoaren presentzia aldarrikatzen dihardue. Unibertso osoa Jaungoikoaren berbea dogu. “Liber naturae” (naturaren Liburua) deritxo Aita Santuak. Baina zentzu hertsian, Jaungoikoaren Berbea Jesukristori dagokio propioki eta beste guztiak Kristoren argi izpiak baino ez dira. Oso-osoan, “hainbat ahotsetako sinfonia dirudi”, Aita Santuaren esanetan.

Zoragarrizko sinfonia eder honetako elementu guztiak harmonizatzen dituan “solista” bakarra Jesukristo da. Eskerrak be-

rari opera txundigarriena entzuten da. Bera barik, ostera, kurrika gogaikarriena eta higuigarriena bihurtzen da.

Guk normalean, Bibliari deritxagu Jaungoikoaren berbea. Baina Aita Santuak gauzak ez nahastatzeko, Eskritura Santua darabil gehienbat. “Christus semper maior” dalako. Kristauon jatorria ez da aurkitzen liburu baten, Jaungoikoaren Berba gizon egindakoarengan baino.

Honela ez deutso Aita Santuak inondiko garrantzirik kentzen Bibliari. Inoiz entzun ez dodan esaldi bi oso ausartak dakaz. Zer esanik ez, esaldiok analogikoki ulertu behar dirala. “Ezer nahastu eta galdu barik”. Esaera batean, Jaungoikoaren Berbearen gizon egiteaz konparatzen dau Eskritura Santuaren apartekotasuna. Eta bestean, barriz, Eskritura Santuaren sakratutasuna adierazteko, Eukaristiako Sakramentua gogoratzen deusku. Esaldi biotan, garbi ikusten da, Benedikto XVI.ak Bibliari deutson erabateko miresmena.

“Jaungoikoaren Berbea Espiritu Santuaren bitartez Andra Mariaren sabelean gizon egiten danez, (Jesukristo), (...) Espiritu Santuaren inspirazioz profeten eta hagiografoen eta idazle santuen bitartez Elizaren barnean gizonen berba egiten da, (Eskritura Santua). Jaungoikoaren Berbea gizakion berba bihurtzen da”. Izan be, Bibliaren bihotza Kristo berbera dogu.

Eta Eskritura Santuaren garrantzia azpimarratzeko, Eukaristiaren sakramentuaz be lotzen dau Aita Santuak, Vatikanoko II. ari jarraituz: “Kristo beti dago presente Eukaristiako ogi-ardoen antzirudipean. Presente dago bere hitzean, Elizan Eskritura Santua irakur dadinean, Bera baita berba egiten dauana”. Eta San Jeronimoren berbak gogoratzen ditu: “Ogisantu-apurra eta odolsantu-tanta bat jausten bada zenbat arduratzen garan, baina Jaunak berba egiten deuskunean Eskritura Santuaren bidez, zenbat bider arreta jarri barik egoten garan berari entzuten”.

Lectio divina

Jaungoikoaren Berbea giza gorputz egin zan bezala, giza hizkera be egin da idazle santuen hitzetan. Horregaitik Elizak aparteko benerazio handia izan deutso beti Eskritura Santuari, Jaunaren gorputzari izan deutson antzera. Aita Santuak bere agiri honetan premia larriko deia egiten deusku Eskritura Santua entzun, irakurri, ikasi eta hausnartzera. Eta San Jeronimoren esaldi sonatu hau dakar: “Eskritura Santua ez ezagutzea, Kristo ez ezagutzea baita”.

Eskritura santua sarri-sarri irakurri eta sakontzeko bide asko eta desberdinak ditu gogoan Aita Santuak. Eta bide guztiak baliagarriak izango dira fedearen eta otoitzaren giroan eta Eliz alkartean egiten badira. Bestela ez dira arimaren janari eta bizitza espiritualaren edari gardena izango. Santuak jarten ditu Eskritura Santuaren interpretatzaile hoberenak bezala. “Viva lectio est vita bonorum”. Euron artean besteak beste Teresa Avilakoa, Joan Kurutzekoa, Teresa Lisieuxkoa eta Edit Stein karmeldarrak aipatzen ditu.

Bibliaren irakurketa eta hausnarketa egiteko, bide bat gomendatzen deusku bereziki Aita Santuak. Bere izena “lectio divina”. Metodo hau antzinako monasterio eta komentuetan sortua eta mendeetan erabilia izan da. Barrero be, Aita Santuak itzelezko garrantzia emoten deutso bide honi. Ez dau bakarrik aipatzen, baita pausoz pauso azaldu be:

Lehenengo pausoa, **irakurketa** (lectio). Eskritura Santuaren zati bat irakurri, galdera hau eginez: Bibliako testu honek berez zer dino? Bestela arrisku bat daukagu Bibliako testuak beti geure erara erabilteko.

Bigarrena, **gogoeta** (meditatio). Honelako itauna geure buaruari eginda, Testu honek zer dinosku gaur guri? Jaunaren berbea ez da iraganaldiko gauza bat, gaur be guregana datorkigu erantzunaren bila.

Hirugarrena, **otoitza** (oratio). Zer konbertsio premia dauka-
gu geure buruan eta bihotzean eta egiteetan? Hori egiten da,
Jaunari parkamena eskatuz, edo erregu bat eginez edo eske-
rrak emonez.

Laugarrena, **konpromisoa** (actio). Zer egingo dogu lagun
hurkoaren alde? Zer egin besteen zerbitzuan?

“Lectio divina” metodoari indar gehiago emoteko edo, An-
dra Mariagan sumatzen ditu Aita Santuak pauso honeen sinte-
sia eta laburpena. Lukas Ebanjelariaren berbak dakaz gogora:
“Mariak gogoan jasoten zituan gauza guztiok, bere bihotzean
hausnartuz” (Lk2, 19; cf. 2,51))

Eta Jaunaren berbearen eta pozaren artean dagoan lotura
frogatzeko, Andra Mariaren esperientzia jarten deusku geure
begien aurrean. “Mater Verbi et Mater laetitiae” deitzen deutso
Andra Mariari bere agiriaren azkenengo zenbakian. Lukasen
ebanjelioan datorren pasarte hunkigarria aipatzen dau. Merezi
dau gogoratzea:

“Jesusek berbetan ziharduala, herriko emakume batek hau-
xe esan eutsan deiadarka: Zorionekoa zu eroan zinduzan sabe-
la eta zuk hartu zenduan bularra! Baina, Jesusek hauxe esan
eban: Zoriontsuagoak, horratino, Jaungoikoaren berbea entzu-
ten eta beteten dabenak!”.

Jakin badakigu non aurkitu benetako zoriona!

Olea